



230. zenbakia

EKAINA 2023 ·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



**Goizaldeko laurak
(Elena Olave, Keinura itzuli)**

Udaberriro heltzen da
haize zakar hau

eraikitako eszena guztiak
harea bihurtzera.

Maitatzen duen gorputzaren
bakardadea
oroit dezadan,
leihoaren kontra jo du haizeak
inor ongi sentitzen ez
den ordu horretan.



Hautatu



3 hedabide

Komunitate
Helburu
Proiektu
Hizkuntza
Eskualde

bera

komunikazioa



pulunpe



ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareeko taldekideez gain, Txurdan, Nabar, Denok bat elkarteak, Eduarne Gerendiain, Patxi Irurzun eta Laia Llop.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.700 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

La Banda konpainiaren *Kimera* ikuskizuna, Lizasoko kuartelenean. Egilea: Pedro Aznarez.

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira ekainaren 10ean bidalia

AURKIBIDEA

04

Erreportajea. *1918ko gripea, Ultzaman*

07

Ingurumena. *Perretxiokak*

08

Euskara erreza. *Herri motak*

10

Kronika. *Denok bat jubilatuen elkarteak*

12

Albisteak.

16

Zer jan, hura izan. *Laia Llop*

20

Erreportajea. *Belateko lapurrak II*

23

Ardo Frexkoa. *Irainak V*

24

Elkarrizketa. *Aitor Arana, Odieta euskara*

26

Aspaldiko Kontuak. *Karrikan belarriak erne*

28

Kirola. *Iker Etxeberria Larraiotz. Rallyak*

30

Herrian bertan, zergatik ez. *Dabid Elizondo pinturak*



31

Zer ikusi *amezti.eus-en*

32

Zer irakurri. *Ultzamako liburutegia*



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Ultzaman eragin handia izan zuen: 35 lagun hil ziren

Berriki pasatua dugu Covid19a eta ez gara gutxi izutu. Bai, hala da, baina gure aitatxi-amatxik kontatu izan digutena, 1918ko gripea hain zuzen, larriagoa izan zen, aise larriagoa, aunitzez jende gehiago hil zelakoz eta nola kontra egin ideiarik ere ez zutelakoz.

Nola izan zen: ideia orokorrak

Datu zehatzik ez da, baina uste denez, 50 miloi lagun baino gehiago hil omen zen Munduan. Pandemia non hasi zen ez da ziurra, baina uste denez Iparramerikan sortu eta mundu guzira hedatu zen. Dena dela, Espainiako gripea deitu izan zaio. Hemen lehen kasuak maiatzean izan ziren: Madril, Bartzelona, Zaragoza, Bilbo, Donostia, Iruñea... eta besteetan.

Dena dela, irailerako aunitz ari zen hedatzen eta Nafarroako Gobernu Zibiletik hil honen 17an udal guziei agindu zieten Udal Osasun Batzordeak biltzeko eta berehala gaixo guzien berri emateko, nondik nora zabaltzen zen jakin ahal izateko.

Iruñean irailaren hasieran eta soldadu guarnizioan azaldu zen lehen eragin-gune inportantea. Eta hortik zabaldu zen denera.

Nafarroan, denetara lau bat mila lagun hil ziren.

Osasun batzordeei desinfektatze lanetarako gomendatutako neurriak honako hauek izan ziren: eskisto olioia, zotala, burdin sulfatoa, formola, petrolioia, kaltzina bizia eta abar. Eta jendearen zaintza zuzenerako, berriz, higiene zorrotza urez eta xaboiez, aguardienta, eta sudur-hobietarako prestatutako urak.

Erien elikadurarako esnea zen gomendatzen zena eta kontsumoa aunitz handitzean, denbora pasa ahala bere prezioa izugarri goratu zen.

Ultzaman gripea. Zenbait datu eta xehetasun.

Ultzamako datuen biltzeko bertako Epaitegiko Erregistro Zibila ikusi ahal izan dugu eta bereziki 1918ko urri-abenduko heriotzen erregistroa.

Ibarreko medikuak firmatutako zertifikatuetan ez zuen gripea jartzen, beste izen batzuek baliatzen zen, gripe-bronkopneumonia, gripe gastrointestinala, bronkitis larria...

Ultzaman denetara 35 lagun hil ziren urria eta azaroan, eta horrelako heriotza kopuruak izugarritzko izua sortu zuela ez dago esan beharrik, jakinik gainera medikuek ez zutela baliagarri handirik eritasuna arintzeko eta, gutxiago, sendatzeko.

Ultzamako lehen heriotza Iraizotzen gertatu zen irailaren 4an, nahiz medikuak idatzi erditzean sortu arazoengatik izan zela. Herritarren oroimenean, behintzat, gripearen eraginez hil zen eta guk horrela bildu dugu.

Dena dela, ofizialki, lehen hila urriaren edo lastailaren lehenean izan zen. Eltzaburuko 25 urteko gizaseme bat izan zen, gripe bronko-pneumoniaz hila.



Alkozko herriko fotografia zahar bat, denen gainetik San Esteban elizako dorre liraina. ▲



Egun horretatik antzina hilak bata bestearen atzetik etorri ziren, areagotuz hila pasa ahala. Hil honetan 19 lagun hil ziren denetara, 9 gizaseme eta 10 emakume. Azpimarratzekoa da, Covid 19an ez bezala, gripearekin jende gaztea hil zela, hamabost urtez azpikoak 7 eta hamabost eta hogeita hamar urte artekoak, berriz, 4. Hirurogei urtez gorakoak bi besterik ez ziren izan.

Jende gehien hil ziren egunak urriaren 27a eta 28a izan ziren, egun bakoitzeko hiru lagun.

Festa, bilkura eta ikuskizun guziak debekatu zituen Gobernadore Zibilak. Era berean, feria, merkatu eta herrien arteko harremanak ere eragotzi ziren.

Zenbait herritan, jendearen izua eta larritasuna ez gehitzeko, hiletetan ezkilak jotzeari utzi zioten, esate baterako Alkotzen, zeinetan hil kopurua handia izan baitzen. Hori diegu entzuna gure aurrekoei.

Hurrengo hilabeteen, azaroan, hilak ez ziren ba gutxiago izan, 18 izan baitziren: 8 emakume eta 10 gizaseme. Hemen ere haur eta gaztetxoak, urtebete eta hamalau urte artean, 8 izan ziren.

Gorrontzen azaroaren lehen hiru egunetan izan zen heriotza bana.

Aitzineko hilabeteen bezala, azaroan ere jende gaztea hil zen; zahar bat besterik ez baitugu topatu, 64 urteko bat.



▲ Lourdes Iraizotz, Pulunpeko laguntzaile berria. Iraun ezazu luze, Lourdes!

Penagarria izan zen, izugarrizko sakaitza izan baitzen gure ibarrean bi hilabete hauetan. Hurrengo hilabeteetan aunitzez gutxiago izan ziren eritasuna izan zutenak eta ez ditugu kontatu hilak. Eskerrak, pandemia bukatuxe zen!

Bietan sartzen da, hemen testu gehiago iragarkia edo zer jar dezakegu...



**Lourdes Iraizotz,
Iraizozko Aritzinekoa.**

Alkotzen urrian edo lastailean hil zirenak:

Basilía Oiartzun Makaia, 4 urtekoa, **Eraxonekoa**

Joaquina Bertitz Txurruka, 24 urtekoa, **maisterra**

Martin Beratsain Iraizotz, 56 urtekoa, **Maisterneko** nagusia.

Joaquina Iriberrí Saralegi, 47 urtekoa, **Sastrenekoa**.

Josefa Iñarrea Iraizotz, 65 urtekoa, maisterra

Pedro Juan Erbiti Zilbeti, 21 urtekoa, **Martixenekoa**

Valentin Gartxitorena Urbiztondo, 28 urtekoa, **maisterra**.

Hiztegia

• **Hain zuzen:** precisamente

• **Orokorra:** general, común

• **Udal Osasun Batzordea:** Comisión municipal de salud

• **Gomendatu:** aconsejar, recomendar

• **Sudur-hobia:** fosa nasal

• **Elikadura:** alimentación, nutrición

• **Epaitegia:** juzgado

• **Erditzea:** parto

• **Areagotu:** aumentar

• **Azpimarratu:** subrayar

• **Ikuskizuna:** espectáculo

• **Sakaitza:** devastación (hitz hau hemen ere ibiltzen da eta hiztegian ez dut topatu)

Handietan handienetakoa

Joan Mari Irigoien idazle handia hil zaigu. Donostiakoa egiten den Altzako auzoan jaioa 1948an eta aurten, maiatzaren 17an zendu da.

Gure idazleetan handiena ez bada handienetakoa bai. Egia esan behar banu, niretako handiena izan da **Lur bat haratago** nobela harrigarriaren egilea delakoz. Nobela historikoa, XVII. mendekoa, eta orduko prosan idatzia, Axularrek Gero famatuan darabilenean.

Xarmagarria egin zitzaidan bere liburua, hobeki esan, harrigarria. Nahiz paragrafo luzeekin idatzia izan argia baino argiagoa, bizkotxada eztarrian behera nola, halaxe sartzen da garunean Joan Mariren prosa. Inoiz irakurri izan dudana prosarik eleganteena. Ez dut ez euskaraz eta ez gazteleraz inoren prosarekin sentitu Joan Marirenarekin sentitu dudana emozioa, literaturaren atsegina eta gozoa.

Hala ere, nahiz idazle anitzek Joan Marik utzi digun **Lur bat haratago**ko prosatik hainbat baliabidez baliatu, nago ez zaiola eman merezi duen inportantzia.


Ez ditut aipatu ere eginen Joan Marik bere obra oparoan utzi dizkigun liburuak. Hala ere aipatu gabe ezin utzi Orbetarrez idatzi Joan Mari, Manuel Irigoien anaia pintorea eta poetak iazko urrian tintaz egin zion irudian. Azkenekoa izanen zuela bazekien Manuelek (Eta bere eskuzabaltasunari esker Pulunpen atera ahal izan dugu, beste inon baino lehen)

Bestea da mundua (2008) Haragiaren gauak eta egunak (2009) eta Nor bere bidean (2010) familia baten saga luzea, bertan Euskal Herriko azken mendeko historiaren erliebea tailatuz joan dena.

Gizon on bat eta idazle hobe bat joan zaigu. Handietan handiena. **Lur bat haratago** joan zaigu Joan Mari, baina hemen utzi digu bere lan oparo eta bikaina.



Juantxo Aleman



Joan Mari, Manuel Irigoien anaia pintorea eta poetak iazko urrian tintaz egin zion irudian. Azkenekoa izanen zuela bazekien Manuelek (Eta bere eskuzabaltasunari esker Pulunpen atera ahal izan dugu, beste inon baino lehen)

Iparaldeko ikastolen alde

Maiatzean izan zen Iparraldeko urteroko festa, Herri Urrats, baina festatik gutxi izan zuen, Senperen bezperan izan ziren uholdeek dena txikitu baitzuen. Irabaziak beharrean galerak.

Galerei erantzuteko diru-bilketa egin behar izan dute.

Zure diru ekarpena egin nahi baduzu, hona hemen banku kontu numero bat:

**Laboral Kutxa ES87 3035 0059
8205 9073 1197**





Perretxikoak

Ongi gordetako altxorra

Hemen ziza edo maiatzeko ziza deitzen diegu, eta euria eta temperatura epela eginez gero, gure zelaietan agertzen ikusiko ditugu. Non aurkitu daitezkeen baldin badakigu behintzat, belaunaldiz belaunaldi transmititutako informazioa baita hori.

Zizak, maiatzeko zizak edo udaberriko ziza zuriak *Galocybe gambosa* du izena latinez. Bizkaian eta Gipuzkoan perretxikoak deitzen omen dituzte, nahiz eta hemen, toki batzuetan, galanpernari esaten zaio perretxiko Gure alderdian oso preziatua da, eta, horregatik, ongi gordetzen dira aurkitu daitezkeen tokiak. Belaunaldiz belaunaldi, familian bakarrik ematen da informazio hori, eta horrek bere balioa handitu eta prezioa garestitzen du, baita merkatuan ere.

Itxura

Ziza zuria da eta orri estuak ditu, zabalera txikikoak. Mamitsua da eta testura sendoa eta trinkoa

du. Aldi berean, ordea, samurra da eta erraz xehatzen da. Usaina oso atsegina du, irindu berria den irin hezearen antzekoa, edo ogi ore altxatu berriarena. Hemen, nahaskian edo tortillan jaten dira, sukaldean prestatu ondoren asko murrizten direlako eta arrautzek probetxu gehiago ateratzea ahalbidetzen dutelako.

Kokapena

Noizbait ikusi al duzue kolore berde biziagoko biribilak edo zirkuluerdiak dituen belardi edo zelairik? Hor hazten dira, espezie saprofitoa direlako eta lurzoruko azaleko geruzaren humusean garatzen direlako. Izan ere, sustraien eta landa espezie

batzuen zurtoinen arrastoez elikatzen dira, eta horiek usteldu egiten dira.

Biribil horiei 'sorgin korro' deitzen zaie, mitologia germanikoaren arabera sorginek horrelako tokietan ospatzen baitzituzten haien dantza magikoak ilargi beteko gauetan, eta horietatik ateratzen ziren haien sorginkeria ikaragarriak.

Korro horiek mizelioa borobilean hazten delako sortzen dira. Mizelioa onddoa osatzen duen lur azpiko armiarma sare hori da eta borobilean hazten da, borobil zentrokideetan, ur tanta batek ur masa batean erortzean sortzen dituen antzekoan. Oso bitxia da, gainera, mizelioak nola sortzen duen beroa ekoizpen bete-betean dagoenean. Zizak biltzera bazoaz, jarri eskua gainean eta nabarituko duzu.

Zizak elorri zuriaren eta elorri beltzaren ondoan ere aurkitu ditzakegu, horiek hezetasuna eta itzala eskaintzen dietelako.

Hazi direnean bildu

Ikusi bezain laster hazteari uzten diotela entzungo zenuten askotan. Aitzakia ederra hori... baina gehienetan oso txikiak biltzen dira, esporak osatu eta heldu gabe dituztela. Hori ziza-lekuak galtzea eragiten ari da. Horregatik, soilik franko hazi direnean bildu.



▲ *Calocybe Gambosa*. Wikipedia

Nolakoak dira gure herriak?

Gure **eskualdean** herriak txikiak dira. Herri asko daude, **hurbil** daude. **Bilduak** daude. Anueko 7 herrietan 490 **herritar** bizi dira **guztira**, Atezko 7 herrietan 212 herritar, Basaburuko 13 herrietan 842 herritar, Imozko 8 herrietan 418 herritar, Lantzen 151 herritar, Odietako 8 herrietan 367 herritar, eta Ultzamako 17 herrietan 1647 herritar.

Gure herrietan, normalean, etxe guztiak **herrigunean** daude. Bildurik. Herrigunetik kanpo, bentak eta **bordaren bat** dago. Horrela da mediterranearen isuriko bailaretan, Iruñerrian, Agoitz eta Irunberri aldean, Lizarralde menditsuan, **Arabako lautadan**...

Baina Belate, Gorostieta, Urkiaga, Azpirotz, Pagozelai... **mendateak** pasatu, eta herriak desberdinak dira, **ezta?** Etxeak oso **sakabanaturik** daude **ipar isurian**. Baztan, Malerreka, Leitzaldea, Bortziri, Goizueta, Araitz... Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa, Gipuzkoa, Bizkaia... Mendi eta zelaiak baserriz/bordaz **beteta** daude.

Erriberan **ordea** (Lizarra, Tafalla eta Zangoatik behera, lautada handietan), herriak handiak dira. Bildurik daude. Eta **urrun** daude. Caparroso,

Villafranca, Sesma, Melida, Zarakastelu, Corella... herri **kozkorrak** dira denak. **Batetik bestera** batzutan 10 km. daude.

Zergatik dira desberdinak herriak? Historiarekin, orografiarekin... **zerikusia dauka**.

Bi eredu nagusi daude: Populatze **sakabanatua** eta populatze **kontzentratua**. Bien artean: **Nahasketa** edo trantsizioa.

Erriberan lautada handiak daude. **Babes** naturalik gabe. Oso babesgabeak. Inbasioetatik defendatzeko herri handiak egin ziren. Herriak handiak dira. Urrun daude. Etxeak kontzentratuak daude. Etxeak ordenatuta daude. Eta herriak **harresiturik** zeuden.

A: Populatze sakabanatua.

Herrigunetik kanpo baserriak/bordak sakabanatuta.

B: Trantsizioa. Populatze kontzentratua.

Herri bilduak, baina txikiak eta hurbil.

D: Populatze kontzentratua.

Herri handiagoak, bilduak, urrun.



Ipar isurian ordea, herrigunea badago. Baina herrigunean maiz etxeak desordenaturik daude. Eta herrigunetik kanpo etxe asko sakabanatuta daude (mendian, zelaietan..).

Bien artean nahasketa eta trantsizioa dago. Herri txiki asko sakabanaturik. **Elkarrengandik** hurbil. Etxeak herrigunean bilduta. Gure eskualdean **adibidez**, herrigunetik kanpo benta edo bordaren bat. Eta herrietan etxeak desordenaturik. Eta **etxe bakoitzak** bere **itxondoa** dauka, normalean.

Historiaren eragina: Sakana

Sakanan, lehen herriak oso txikiak ziren. Hemen **bezala**. Baina Castillak Nafarroako **mendebaldea** (**gaurko** Araba, Gipuzkoa...) konkistatu zuen 1200 urtean. Muga berria oso **arriskutsua** zen. **Erasoak**, inkurtsioak...

Horregatik, herri txiki asko **desagertu** ziren Sakanan. Herritarrek herri berri handiak egin zituzten. Defentsa herriak. Babesteko.

Aranaz lurraldean adibidez, herri txiki hauek despopolatu ziren:

Adia (Lizarraga), Aldaba, Araña, Arrozpide, Artola, Egiarreta, Elbegia, Elkorri, Erdozia, Lazkoz, Urkizu, Nenau, Mundiñano, Ondaz, Maiza, Mugarretxe, Illarrazugoikoa, Orgaoizua, Sarria (Lizarragabengoa).

Eta Etxarri-Aranatz eraiki zuten. Babestuak egoteko.

*(**Populatze eredu** historikoa, industrializazioa baino lehenagokoa).



Nabar



▲ Etxarri-Aranatz

- **Hiztegia**
- **Mota:** Tipo.
- **Nolakoak dira:** Cómo son.
- **Eskualdea:** Zona, comarca.
- **Hurbil:** Cerca.
- **Bilduak:** Agrupadas.
- **Herritar:** Vecino, habitante.
- **Guztira:** En total.
- **Herrigunean:** En el núcleo urbano.
- **Bordaren bat:** Alguna borda. X-(r)en bat: Algun(a) X.
- **Mediterranear isuria:** Vertiente mediterránea.
- **Arabako lautada:** Llanada alavesa.
- **Mendatea:** Puerto.
- **Ezta?:** No es así?
- **Sakabanaturik:** Dispersas.
- **Ipar isuria:** Vertiente norte.
- **Beteta:** Plagadas.
- **Ordea:** En cambio.
- **Urrun:** Lejos.
- **Kozkorrak:** Majos, bastante grandes
- **Batetik bestera:** De uno a otro
- **Zerikusia dauka:** Tiene que ver.
- **Eredu:** Modelo
- **Nagusi:** Principal
- **Sakabanatua:** Población dispersa.
- **Nahasketa:** Mezcla.
- **Babes:** Protección.
- **Harresiturik:** Amurallado. (Harresia: Harri + hesia, muralla)
- **Elkarrengandik:** cerca unos de otros.
- **Adibidez:** Por ejemplo.
- **Etxe bakoitzak:** Cada casa.
- **Itxondoa:** Terreno junto a la casa. Itxe (etxe) + ondoa
- **X bezala:** Como X.
- **Mendebaldea:** Oeste.
- **Gaurko X:** El/la X de hoy.
- **Arriskutsua:** Peligroso.
- **Erasoak:** Ataques
- **Horregatik:** Por eso.
- **Desagertu:** Desaparecer.
- **Populatze eredu:** Modelo de población.



Maiatzean Larraun aldera egin dute txangoa

Oraingoan maiatzan egindakoari buruzko kronika duzue. Larrialdietarako ikastaroak eta txangoa: Mendukilo leizeetara, Asitzen; eta Lekunberrira.

Maiatzaren 22an eta 29an egin genituen ikastaroak, bata Jauntsaratsen eta bestea Larraintzarren. Bizi-larrialditan nola jokatu dezakegun eta desfibriladorearen erabilera ikasi zuten. Interesgarria iruditu zitzairen hurbildutakoei, noizbait larrialdiren bat gertatzen bada, badakitelako nola jokatu. Anuen ere eginen da ekainaren 8an goizeko 9:30etan udaletxean, Olaguen.

Maiatzako txangoa, Astizko leizeak ikustera joan ginen, Mendukilo izeneko leizeak. Mendukilo "mendiko ikuilua" esan nahi omen du. Joan ginenen kopurua

aipatzekoa da, 100etik gora lagun, ia-ia pandemia aurretik egiten ziren bidaietan bezalakoa.

Ze edertasun gordetzen duten, milaka urtetan zehar urak egindako lanak, benetan politak eta handientsuak. Bi taldetan banatu ginen eta bakoitzak bere gidarekin ordubete luzeko bisita egin genuen, arropa egokiarekin, barnean 8 eta 10 gradu arteko temperatura besterik ez baizuen egiten, fresko!

Gero, Lekunberrira hurbildu ginen bazkaltzera, ohitura dugun bezala, elkarrekin gozatzeko, janariaz eta

lagun arteaz.

Bazkal ondoren, Lekunberrin barna ibiltzeko eta herria ikusteko beta izan genuen. Zazpi t'erdietan autobusa hartu eta etxera itzuli ginen, beste behin egun ederra pasa ondoren eta hurrengoa nora? galdetuz, berehala apuntatzeko asmoarekin.

Datorren hilabetean Portugalerako bidaia izanen da eta baita Noruega aldeko fiordoak ikusterakoa ere, azken hau Arkupeak elkartearekin. Joaten direnak oso ongi pasa dezatela eta bere kontuen zain izanen gaituzte.



Mendukilon, gidaren hitzak arretaz entzuten ▲



Ekaineko txangoa Erronkari aldera egiteko asmoa dugu, eta hurrengo alean kontaktuko dizuegu nola joan zaigun, ea Mendukilora bezain beste joaten garen!! **Bitartean osasuntsu egotea opa dizuegu.**



 **Denok Bat
Jubilatuena Elkarte**



Autobusaren bila, Lekunberrira joateko ▲



Bazkal ondorengo solasaldian ▲



Carrefour
express
Zugandik gertuago

ASTELEHENETIK OSTIRALERA
9'00 - 20'00
LARUNBATA ETA IGANDEA
9'00-14'00 / 16'00 -20'00

**¡Zure zain
gaude!**

Erp. Gulina km. 12'8
31867 Aroztegi - Atezko Ibarra
IZARPE KANPINA



CAMPING - KANPINA
IZARPE
ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA



Udal eta Foru hauteskundeen emaitzak, eskualdean


Udal eta Foru hauteskundeak izan ziren maiatzaren 28an Nafarroan. Eskualdean ere, herritarrak bozetara deituak zeuden. Udalerri bakoitzean egondako emaitzak jaso ditugu albiste honetan.



Imotz

Imotzen, parte-hartzea %64 puntukoa izan da, 150 pertsonak eman dute botoa, guztira. EH Bildu soilik aurkeztu da Imozko Udalerako, eta botoen %76,92 eraman ditu. Alfredo Unzueta izanen da datorren legegintzaldian alkate, eta berarekin batera, beste sei zinegotzi ariko dira lanean.


Nafarroako Parlamenturako botoei dagokionez, parte-hartzea %68 puntukoa izan da; EH Bilduren aldekoak %37,5 (87 boto), Geroa Bai-ren aldekoak %24,13 (56 boto), UPNren aldekoak %15,08 (35 boto), PSN-PSOEnak %11,2 (26 boto), Contigo-Zurekin taldearentzat %4,74 (11 boto), PPrenak %3,44 (8 boto).



Basaburua

Hemen ere EH Bildu izan da aurkeztutako talde bakarra. Parte-hartzea %70,72 puntukoa izan da, eta botoen %84,3 izan dira EH Bilduren taldearentzat (403 bozka). Santos Etxegia izanen da alkatea, eta berarekin beste sei zinegotzi izanen dira taldean.

Nafarroako Parlamenturako botoei dagokionez, parte-hartzea %72,23koa izan da. EH Bilduk jaso ditu botoen %58,31 (291 boto), Geroa Baik %16,43 (82 boto), UPNk %10,62 (53 boto), PSN-PSOEk %5,81 (29 boto), PPk %2,2 (11 boto) eta Contigo-Zurekin taldeak %1,6 (8 boto).




Ultzama

EH Bildu izan da, lehendabizikoz, Ultzaman aurkeztu den talde bakarra, Agrupación Ultzamak ez baitu talderik atera aurtengoan. Parte-hartzea %54,62 puntukoa izan da, guztira 405 pertsonak botatu dute, eta horien %67,5ak EH Bilduren alde egin du. Martin Pikabeak alkate segituko du, beraz, eta berarekin batera, beste zortzi zinegotzi ariko dira, aurreko legegintzaldian baino lau gehiago.

Nafarroako Parlamentuari dagokionez, parte-hartzea %59,4 puntukoa izan da. Lehen indarra EH Bildu izan da, botoen %30,63rekin (235 bozka). UPNk botoen

%24,9 jaso ditu (191 bozka), Geroa Baik %24,64 (189 boto), PSN-PSOEk %6,38 (49 boto), Contigo-Zurekin taldeak %4,3 (33 boto), PPk %3,38 (26 boto).






Odieta

Odieta izan da eskualdean udal-hauteskundeetara talde bat baino gehiago aurkeztu diren udalerrri bakarra. Odieta Elkarte Independentea eta EH Bildu egon dira bertan aurrez aurre. Parte-hartzea %75,43 puntukoa izan da, eta botoen %66,35 Odieta Elkarte Independentearen aldekoak izan dira. EH Bildu, lehen aldiz aurkeztu den taldea, bigarren postuan gelditu da botoen %31,75ekin. Alberto Urdanizek alkate jarraituko du, beraz, eta berarekin arituko dira Udalean elkarte independenteko beste lau zinegotzi eta EH Bilduko bi.


Nafarroako Parlamentuari dagokionez, parte-hartzea %72,98 puntukoa izan da. EH Bilduk jaso du gehien, botoen %77,78 (75 boto), UPNk %24,12 (48 boto), Geroa Bai-k %19,09 (38 boto), PSN-PSOEK %8,54 (17 boto), Contigo-Zurekin taldeak %3,51 (7 boto), VOXek %2,51 (5 boto).



Anue

Agrupación Burdindogi izan da aurkeztu den talde bakarra. Parte-hartzea nahiko baxua izan da, %47,53 puntukoa. Botoen %85,47 izan dira talde horren aldekoak, eta beraz, zazpi zinegotzi atera dituzte.


Nafarroako Parlamentuari dagokionez, parte-hartzea %62,66 puntukoa izan da. Geroa Baik botoen %26,58 jaso du (63 boto), UPNk %23,2 (55 boto), EH Bilduk %22,78 (54 boto), PSN-PSOEK %9,7 (23 boto), VOXek %4,21 (10 boto) eta Contigo-Zurekin taldeak %3,79 (9 boto).



Lantz

%73,04 puntukoa izan da parte-hartzea Lantzen, eta Agrupación Lantz taldeak bost zinegotzi izanen ditu.


Nafarroako Parlamentuari dagokionez, parte-hartzea %72,17 puntukoa izan da; Geroa Baik botoen %30,12 jaso ditu (25 boto), EH Bilduk %24,09 (20 boto), UPNk %18,07 (15 boto), PSN-PSOEK %13,25 (11 boto), Contigo-Zurekin taldeak %3,61 (3 boto), eta PPK %3,61 (3 boto).



Atez

Udal hauteskundeetara ez da talderik aurkeztu, beraz, aurreko udal-taldeak jarraituko du beste sei hilabetez gobernatzen. Ondoren, hauteskundeak deituko dira berriz.

Nafarroako Parlamentuari dagokionez, parte-hartzea %76,92 puntukoa izan da. EH bilduk jaso ditu botoen %30 (42 boto), UPNk %29,28 (41 boto), Geroa Baik %15 (25 boto), PSN-PSOEK %10 (14 boto), Contigo-Zurekin taldeak %3,57 (5 boto), eta PPK %3,57 (5 boto).



*Grafikoen iturria: Berria.eus



Utzamaldeko II. Goxoa txapelketa amaitu da

Aurreko maiatzaren 19an, ostiralarekin, arratsaldeko 17:00etan jokatu ziren Auzako frontoian Utzamaldeko II. Goxoa txapelketako finalak. Hilabete luze bat irauten duen txapelketari amaiera ematen zion eguna izan zen.

Txapelketa apirilaren erdialdean hasi zen, ligaxka fasearekin. Lehenengo eta bigarren mailan zortzina bikote sartu ziren txapelketan. Lizasoko Orgi jatetxeko otordua eta kopa izan ziren sariak.



publikoa ▲

Finaletako jardunaldia bigarren mailako partidarekin hasi zen, azken orduko bi bajarekin. Izan ere, Joxerrak finalaurrekoa ezin izan zuen jokatu, final laurdenetako partidaren izan zuen behatz luxazioarengatik; bere ordez Jabiartxo jarri zen bikotea defendatzeko. Bestalde, Xomok zuntz haustura izan zuen finalaurreko partidaren; eta, Josu, anaia, aritu zen bere ordez finalean, Beloki eta Zulaikaren aurka. Markagailuan diferentzia handia izan arren, partidu gogorra eta lehiatua izan zen. Zulaikak asmatu egin zuen erremateetan eta Belokik eskuin solte bat erakutsi zuen. Belokik eta Zulaikak osatutako bikotea izan zen txapeldun.

Lehen mailako partidaren Murgiondok eta Retegik lortu zuten txapela, Barbajero eta Legarraren aurka. Erritmo bizikoa izan zen partidaren lehen zatia, dirdira handiko tantoekin. Markagailua zortzira berdinduta zegoela, Retegik eta Murgiondok erritmoa mantendu eta basaburuarren beherakada eragin zuten. Azkenean, 22 eta 13 bukatu zuen markagailuak, Irurtzungo klubeko pilotarien alde.



Utzamaldeko Mankomunitatea



sari banaketa ▲



Ultzamako igerilekua, ekainaren 9tik aurrera zabalik

Uda giroarekin batera, iritsi da Ultzamako igerilekuaren 2023ko sasoia. Ekainaren 9tik irailaren 10era bitartean egonen da zabalik igerilekua, astelehenetik igandera, 11:30etik 20:15era. Aurtengo tarifak, bonoak, deskontuak eta bestelako informazioa Ultzamako Udalaren webgunean kontsulta daitezke.

Aurtengo ikastaroetarako dagokionez, bi ikastaro eskainiko dira: lehena uztailaren 3tik uztailaren 28 arte, eta bigarrena, abuztuaren 3tik abuztuaren 31 arte. Ikastaroetarako lotutako informazio eta xehetasun guztiak igerilekuan bertan emanen dituzte, eta 948 30 53 52 telefono zenbakira deituz ere egin daiteke, ekainaren 10etik aurrera.



Ultzamako igerilekua ▲

**LANDA
NAFARROA LOTU**

Tokikoa, Jasangarria eta digitala



**CONNECTA
NAVARRA RURAL**

Local, sostenible y digital

Nafarroako Lurralde Ekintza Taldeen arteko lankidetzaren proiektua, lurraldeen Erronka demografiakoa konektibitatez sustatuz.

- Poblazioa, enpresak eta administrazioa arteko **KONEXIO DIGITALA**
- **KONEXIO FISIKOA** Mugikortasunerako soluzio jasangarriak
- Bertako produktuen eskaintza eta **ESKARIAREN ARTEKO**

ESKAINITZA
DOAKOA

**LOTU
ZAITEZ**

Informazio gehiago hemen:
conectanavarrarural.org

**TAILERRAK
JARDUNALDIAK
IKASTAROAK
LANSAIOAK
HITZALDIAK
ESCAPE ROOM-a**



UNIÓN EUROPEA
Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030



cedema garalur



ZONA MEDIA
GRUPO DE ACCIÓN LOCAL

Teder

consorcio
EDER



Zein dira baraualdiaren onurak, eta nola komeni da egitea?

Medikuntza txinatarrean eta elikadura osasuntsuan espezializatua da Laia Llop Aizarozko bizilaguna. Elikadurak, gorputzak eta osasunak elkarren artean duten loturaz dihardugu berarekin hilero, eta garai bakoitzari dagokion errezeta osasuntsuren bat dakarkigu. Oraingoan, baina, azken aldian boladan jarri den baraualdiaren inguruko gakoak ekarri dizkigu atalera.

Aldizkako baraualdia, baraualdi terapeutikoa... azken aldian asko entzuten ari gara osasunari begirako baraualdien inguruan. Baina, zertan datza zehazki? Zeintzuk dira bere onurak? Guzti horretaz aritu zitzaigun Laia Llop irratiko azken kolaborazioan. "Terapeutikoki aspalditik erabili izan da baraualdia, baina 2016tik aurrera bereziki jarri zen boladan, Yoshinori Ohsumi japoniarrek autofagiaren inguruko aurkikuntzak medio, medikuntzako nobel saria irabazi zuenean".

Autofagia, edo gorputzaren erregaia aldatzea

Baina, zer da autofagia delako hori? "Gure zelulek duten gaitasuna da autofagia, eta nolabait, gorputzak 'bere burua janez', autofagiaren bidez, energia lortzean datza". Zelulak birziklatu egiten dira autofagiaren bidez, eta osasunerako eta gaixotasunak ekiditeko onuragarria da hori. "Hainbat erlijiotan ere asko erabiltzen da baraualdia, baita praktika espiritualetan ere, argitasun mentala lortzeko helburuarekin", dio Llopek.

Aldizkako baraualdiaren inguruko ikerketek frogatu dutenez, pertsonen gorputzak zenbait ordu jan gabe pasa ondoren, hainbat prozesu hasten dira martxan. 12 ordu jan gabe egon eta gero, adibidez, gorputzak energia lortzeko glukosa erabili beharrean, beste elementu batzuk erabiltzen hasten da. "Normalean, gorputzaren erregaia glukosa izaten da, baina glukosarik ez badago, orduan martxan jartzen da gorputza, zetonekin funtzionatzen", dio.

Azukrea da glukosa, azken batean, baina zekale, irin fruta eta beste elikagai ugariren bidez lortzen dugu. Eta zer gertatzen da glukosa faltarekin? Bada, glukosa berreskuratzeko zerbait eskatzen digula gorputzak segituan. "Glukosa falta hori sumatzean, tendentzia azkar batean zerbait

“ **Gorputzak glukosatik hartzen du energia beti, baina baraualdiaren bidez posible da beste erregai batzuk erabiltzea** ”





jatea da, ogitarteko bat edo antzeko zerbait askotan. Inoiz ez diogu uzten gorputzari nahikoa denborarik erregaiz aldatzeko eta beste ibilbide bat hartzeko”, gehitu du aizaroztarrak.

Baraualdi desberdinak aukeran

Gorputzaren erregai gisa glukosa ez erabiltzea dakar baraualdiak, esan bezala. “Gorputzak erreserba ugari ditu, badu nahikoa energia glukosarik gabe ere, eta beste ‘gasolina’ baten bidez ederki funtzionatu dezake”. 12 orduko baraualdi aldizkako baraualdiaren bidez glukosaz gain gorputza zetona ere erabiltzen hasten da, lehenago aipatu bezala. 16 orduko baraualdiarekin, berriz, maila

handiagoan hasten da gorputza zetona bidez funtzionatzen. Bestetik, badago 24 orduko baraualdia ere. Kasu horietan, autofagia prozesuak hasten dira, eta zenbait gaixotasunen kasuan onuragarria izan daiteke.

Autofagiari lotutako onurez gain, kontuan hartzekoa da baraualdiaren bidez gure digestio-aparatuari ere deskantsua ematen diogula. “Jaten dugunean, gorputzak digestioa egiteko energia asko behar du. Egunean bost alditan jaten badugu, energia hori guztia digestioa egitera bideratuko dugu, eta energia hori ez dago erabilgarri buruarendako edo beste organoendako”.



▲ Baraualdi intermitentea

Baraualdi formatu desberdinak

Ohikoak diren hiru baraualdi formatu desberdin aurkeztu dizkigu Laia Llopek, baraualdiaren iraupenaren arabera. Ura, infusioak, salda beroak eta antzekoen bidez lagundu daiteke baraualdia, “Digestiosistemari lan handirik ematen ez dioten gauzak”, alegia.

-12 orduko baraualdia: 12 ordu jaten eta 12 ordu baraualdian. Jateko aukera dagoen tarte horiei ‘leiho’ deitzen zaie. Elikadura guztia ‘leiho’ horretan sartzen saiatzean datza. “Goiz afaltzea eta beranduago gosaltzea litzateke modurik errazena, iluntzeko 20:00etatik goizeko 8:00etara baraualdia egitea, adibidez”.

-16 orduko baraualdia: baraualdi formatu honetan, ohikoena gosaria edo afaria kentzea da, jateko ‘leioa’ pixka bat txikiago egitea, alegia

-24 orduko baraualdia: egunean otordu bakarra egiten duen jendea sartzen da baraualdi mota honetan

Aizaroztarrak azpimarratzen duenez, norberak pixkanaka probatzea da interesgarriena, norberari zerk funtzionatzen dion jakiteko. Ez da zertan egunero gauza bera egin behar. Baraualdia egitea pentsatzen ari denak xehetasun gehiago eta laguntza jaso nahi badu, Llopen Argimallutak proiektura jo dezake beti.



Beuntzako frontoiaren inaugurazioan, Iker Uriberen muralaren aurrean



Herri Kirolak Beuntzako frontoiaren inaugurazioan



Erakustaldia Beuntzako frontoiaren inaugurazioan



Maiatzaren 13an, Larraintzarren, errugbi gaupasan, errugbia probatzeko saioetan

Zorionak Zorionak!



Patxi eta Joxe León, Gartzaronen



Zorionak,
Oinaty!



Berueten jende multzo ederra San Migeli ongi etorria ematen. Elizatarian, Apeztekeko atearen ondoan, zahar, gazte eta haurrak.



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com



Basaburuko, Ultzamako eta Odietako 95eko kintoak

Nor izan ziren, eta zergatik ebasten zuten?

Maiz entzun izan dira eskualde honetan Belateko lapurren inguruko istorioak, eta guretik kanpo ere, ezagunak dira zenbaitentzat. Horren lekuko dugu Euskal Gaizkileak podcast seriean atal bat eskaini izana haien historiari. Euskara ikasten ari den Lanzko bizilagun bat, Martin Jose Tellon Oyaregi, lapur horien historian arakatzen aritu zen aspaldi, eta azken hilabeteotan berriz ekin dio. Halaber, bildutako informazioa Pulunpeko irakurleekin partekatu nahi izan du. Ale honetan eta hurrengoan argitaratuko dugu aldizkarirako egokitutako lana.

Txikitan, amak Belateko lapurren istorioa kontatu zidan, baina, egia erran, berak ez zekien arrunt ongi gertatu zena. Unibertsitatean ikasi nuenean, San Frantziskoko liburutegira joaten nintzen, eta ordenagailurik, mugikorrik edo internetik ez zegoenez, entretenitzeko, historia horri buruz irakurtzen nuen. Gero, bizitza pasatu ahala, aldi baterako utzi nuen historia hori, nahiz eta, nolabait, nire buruan beti egon zen.

Gaur egun, euskara ikasten ari naiz, eta nire irakasleak kontakizuna atera zuenean, gai horrekiko interesa berpiztu zitzaidan.

Zergatik ebasten zuten?

Zergatik ebasten zuten jakitea zen gehien interesatzen zitzaidana, lapurrak delitu horiek egitera zerk eraman zituen jakitea. Nire ikuspuntutik, hori ulertzen saiatzeko bi gako daude:

• Independentzia Gerra

Belateko lapurren historia Independentzia Gerra garaian gertatu zen. Badakigu gerrak gosea, miseria, mina, gaitzak eta beste hainbat ezbehar dakartzala, eta horrek bereziki jende behartsuena zigortzen duela, Zenotz familiaren kasuan bezala

(lapurren artean familia horretako zenbait anaia zeuden).

Gainera, Lanzko herria Iruñetik Frantziarako bidean erdi-erdian gelditzen da geografikoki, eta bide nagusiak herria zeharkatzen zuen. Tropa frantsesek behin baino gehiagotan arpilatu zuten herria. Hori gutxi balitz, Lantzek hamabi gerrillari eman zizkion Espoz y Minaren erresistentziari, eta ondorioz, tropa frantsesek herriaren kontrako errepresaliak hartu zituzten,azienda osoa akabatu zuten eta apezka eta lau herritarren amak atxilotu zituzten.

Belateko lapurrak xumeak ziren, baliabide ekonomiko gutxi eta behar handia zuten. Baliteke, bizirik mantendu ahal izateko ebatsi behar izatea. Era batera edo bertzeraz, denek jasan zituzten gerraren ondorioak inguru horretan.

• Immigranteak

Garai hartan, immigrazioa herriz herri gertatzen zen, eta Zenotz familia Iruñetik Lanzko ailegatu zen. Gaur egun erraza egiten zaigu immigrazioaren fenomenoaren zein gogorra den ulertzea. Zenotz anaiek ahal zuten guztia egin zuten lan egiteko:



lur zati txiki bat alokatu zuten, jornalari eta ikazkin gisa egin zuten lan, eta amuarrainak ere harrapatzen zituzten jateko. Baina, hala ere, ez zen nahikoa bizitzeko.

Bertzalde, 'Casas bajas' auzoan bizi ziren, garai batean auzo agotea izan zena, eta, beraz, arrunt ospe onik ez zuena. Hori guztia kontuan hartuta, ironikoa da ebastera bultzatu zituen gizarteak delitu horiengatik zigortzea.

Noiz ebatsi zuten?

Lapurretak hiru alditan gertatu ziren:

- 1810tik 1811ra. Hasmentan, hiru lapurreta txiki egin zituzten. Hastapeneko aldi hori pasatuta, baliteke nahikoa diru erdietsi izana edo gerrak gogor jo izana. Nolanahi, ia bi urte eman zituzten ebatsi gabe.
- 1813tik 1814ra. Bost lapurreta eta hilketa bat egin zituzten tarte horretan. Lapurretak areagotu

ziren, eta gerra akabatu arte iraun zuten.

- 1815etik 1817ra. Aldi horretan hamaika lapurreta eta bi hilketa egin zituzten. Gerraondoko garaia zen, eta egoera soziala arrunt gogorra. Zalantzarik gabe, lapurrak ankerren izan ziren garai aktiboena dugu. Horietan, laugarren anaiak lagundu zien: 'Zaindariaik'.

Nor ziren lapurrak?

Honako hauek izan ziren Belateko lapurren artean pertsonaia nagusiak:

Zenotz anaiak

- **Juan (Martin) Zenotz:** Anaia zaharrena zen. Dakigunez, Nafarroako iparraldean anaia nagusia zen etxearen oinordekoa, eta, beraz, familia osoa zaintzeko ardura hartzen zuen. Familiak behar handia baitzuen, zerbait egin behar zuen, eta akaso horregatik ebatsi behar izan zuen.

Taldeko burua zen, eta bi hilketa leporatu zizkioten: Diego Zufiaurrerena eta Juan Antonio Berriorena, baina, egia erran, berez ez zituen hil nahi. Zufiaurreren kasuan, ebastera ari zitzaionean aurre egin zion Zenotzi, eta eskopeta kentzen saiatu zen. Borroka horretan, Zenotzek Zufiaurreri tiro egin eta hil egin zuen.

Juan Antonio Berrioren kasuan, aldiz, lapurreta baten ondoren, Anotzibarko talde bat lapurren bila joan zen, eta harrapatzera zihoazenean tiro-gurutzaketa bat hasi zen. Haietako batek hil zuen Juan Antonio Berrio.

Krimen horiengatik urkatu eta zatitu egin zuten Juan Zenotz. Baina... nola erdietsi zuen Janariz epaileak bere aitortpena? Bada, gezurrekin engainatuz. Epaileak agindu zion dena aitortuz gero barkatu egingen ziotela. Zenotzek dirua ebasten zuen, baina Janariz epaileak bizia ebatsi zion "justiziaren izenean". Nor da lapurrik handiena?



▲ Belateko portua



• **Pedro (Esteban) Zenotz:** Bigarren anaia zen eta badirudi bihotz onekoa zela. Anaia zaharrenaren laguntzailea zen. Zufiaurreren hilketaren ondoren, adiskide bat, Munarriz, erotu egin zen eta Pedro Zenotzi aurre egin zion. Juan Zenotzek Pedro Zenotzi hiltzeko oihu egin zion, baina azken hori dardarka hasi zen eta ez zuen horretarako adorerik izan. Hilketen egile materiala izan ez bazen ere, urkatu egin zuten horien parte izateagatik. Urkabean bera zen damu handiena zuena, eta jendeari eskatu zion "Salbe" bat otoitz egiteko.

• **Joaquin Zenotz: Hirugarren** anaia da, ezezagunena. Hasmentan, lapurretetan parte hartu zuen, baina gerraondoan ez zuen berriz ebatsi. Zergatik utzi zion ebasteari? Damutuko zitzaion, akaso. Lapurretetan beti gibelean egoten zen bera. Segur aski, anaiei aurre egin behar izan zien ebasteari utzi nahi izan ziolarik. Akaso, berak konbentzitu zuen anaia txikia lapurren taldean sar ez zedin.

• **(Pedro) Martin Zenotz:** Laugarren anaia, "zaindaria". Bere historia da interesgarriena. Hamasei urtetan Espoz y Minaren gerrillan sartu zen, Frantziako armadaren aurka borrokatzeko. Tiratzaile ona izateagatik zen ezaguna, hamaika soldadu frantziar hil zituen. Horregatik, gerra akabatu zelarik, Belateko zaindari lanpostua eskainiz saritu zuten, Frantzia eta Iruñea arteko bidean postu garrantzitsuenetako bat, alegia. Bitxia da soldadu frantziar aunitz hiltzeagatik (gerraren izenean) sari bat eman izana eta pertsona bat hiltzeagatik urkatzea eta zatitzea. Gizartearen moral bikoitza.

Martin Zenotz nerabe zela joan zen gerrara, eta odol eta su artean hezi zen. Gerrak pertsonen morala suntsitzen du, baita Martin Zenotzena ere. Horregatik, bere azken etapako lapurretetan baino ez zuen parte hartu Martin Zenotzek, baina azken denboraldia izan zen, hain zuzen, lapurreta gehien egin zituztena. Pertsona

bakarra hil zuen berak: Tomas Indart. Justiziatik ihes eginda zegoen Indart, eta ezkutuan Iruñera joan zen negozio batzuk egitera. Itzuleran, diruz, zaindaria kontratatu zuen, g a u e z Belate zeharkatzeko. Lana arrunt erraza izan zen Zenotzendako: ebatsi zion, hil zuen, eta amildegi batetik behera bota zuelako ustea dago.

Martin Zenotzek jende aunitz hil zuen bere bizitzan. Tomas Indart horietako bat, besterik ez zen.

Zenotz anaiez gain, dena den, baziren pertsona gehiago Belateko lapurren artean. Horiek guztiez, lapurren inguruan barreiatu ziren gezur eta sasi-egiez eta bertze hainbat kontuz, hurrengo Pulunpe alean idatziko dugu.



**Martin Jose
Tellon Oyaregi**





Irainak irain, euskaraz ongi ikastea da gakoa

Berriz ere hemen nator ba, eta gaurkoan ere irainez idatziko dut eta hau da bosgarren artikulua. Denei ez zitzaien askorik gustatu azkenekoa. Orain ez dela asko, emakume batek esaten zidan irainik ez dela erabili behar. Gutxiago iraindu behar direla haur eta gaztetxoak. Traumatizatu egiten ditugula. Agian arrazoi du. Agian.

Lehen irain asko erabiltzen zen, asko. Agian askotxo? Askotxo, bai, baina orain aspergarriak gara, monokordeak; hizkera laua darabilgu, ertzik gabea, motela, totela eta nekagarria.

Emakume horri esanen nioke, **irainak irain**, nahiago dudala lehengo hizkera gogorxeago hura,

baina koloreduna, gorabehera aunitz zuena, ertzez betea, gazduna, lasterkaria eta piperduna, eta batzuetan iraingarri xamarra. Edo irainik gabeko euskara garbia nahiago al duzue? Arranopola, irainik gabeko hizkera nahiago!?

Umeak **traumatizatu** nahi ez dituenak ez ditzala nire haur denborako eta oraindik ere geroagoko irain bakar hauek erabili: **ume mukizua, ume zikin, umemoko, ume alu, umexabor, ume puta...**

Edo **mutiko alu, mutiko bixar, mutiko zikin, mutiko kaiku, mutiko puta...** edo mutiko (autozentsuratua)

Ume puta edo **mutiko puta** irainak gizonek soilik zituzten erabiltzen eta gehienetan ez zazpi-zortzi

urteko mutikoez, 20-30 urteko mutil eginei buruz baizik. Gazteak eta oraindik haurrak? Bai, orduan ere izaten ziren edo izaten ginen, **haur alu alenak**. **Haurkeriak** egiten zituztenak.


-Haurrak baitira! –Izaten zen erantzuna.

Ai, ai, ai, **mutiko puta** hauek ez dute gauza onik egiten eta isil nadin. Hizkuntza garbiaren aldeko natura zikintzaileak ez ditut ba nik gogoko eta gutxiago atsegin.

Isil nadin eta Joxe Mari xaharrarekin banoa tanke bana bete ardo frexko bizkorra edatera herriko tabernara. Gora Joxe Mari attun iraintzaile atsegin! Eta gora gure hizkuntza.

 Txurdan

Onda'ai hemendik, lotsagabe zikiñe!!!!



Hiztegia

Agian: tal vez

Laua: plano

Ertza: arista, borde, esquina.

Esaldia

Irainak irain. Irainak alde batera utziz, goazen...

Haurrak baitira (Haurrek baita):

Urtez ongi eta guzpidez motz direnez esaten da.

Odietako eta Olaibarko euskararen hiztegia argitaratu da

Koldo Kolomo eta Aitor Arana hizkuntzalari eta idazleek osatutako hiztegia da. Bi ikertzaileek XX. mendean Nafarroan galdu ziren hiru euskalkiak dituzte langai eta horien hiztegiak argitaratu dituzte Lingua Navarrorum bilduman. Azkenekoa Odietako eta Olaibarko euskararen hiztegia izan da, eta Odietan udalak doan banatu du herritarren artean.

Koldo Kolomok eta Aitor Aranak XX. mendean Nafarroan galdu ziren hiru euskalkiak dituzte langai: erronkaria, hegoaldeko goi-nafarrera eta zaraitzua. Horien hiztegiak argitaratu dituzte Erroteta argitaletxearekin, Lingua Navarrorum bilduman. 18 hiztegi dira kalean, honezkerok, Zaraitzuko, Txulapaingo, Artaxoako, Aurizko, Orreagako eta Iruñekoak tarteko.

Kaleratzen azkena Odietako eta Olaibarko euskararen hiztegia izan da, bi udal horien laguntzarekin. Odietan doan banatu dute hiztegia, maiatzaren hasieran. Odietako euskaraz eta hiztegiak gehiago jakiteko, Aitor Arana elkarrizketatu dugu.

Zein asmorekin osatzen ari zarete Lingua Navarrorum bilduma?


Gaur egun, euren buruari honako galdera egiten dion euskaldun asko dago: nolakoa da hemengo euskara? Gipuzkoarrek edo baztandarrek, adibidez, badakite euskara batua, baina badute haien euskara. Baina Garesen, adibidez, nolakoa zen? Gaur egun internet eta sarearekin hurbilago dago, baina gu honekin hasi ginenean informazioa eta materiala herritarrengandik urrun zegoen. Material hori denon eskuetan jarri nahi genuen. Lehenengoa Zaraitzukoa izan zen. Gero Gareskoa, Oltzakoa, Goñibarkoa eta beste leku askotakoekin osatu genuen bilduma.

Noren laguntzarekin argitaratu da?

Hiztegi hauek Lingua Navarrorum bilduman argitaratzen ditugu. Normalean udalen laguntzarekin argitaratzen da, eta beste batzuetan pertsona interesatu batek mezenas moduan ordaintzen du argitalpena. Ez dezagun pentsatu argitaletxeak gehiegi inplikatzeko direnik, hiztegiak ez direla saltzen esaten baitigute. Odietaren eta Olaibarren kasuan, bi udalek baiezkota eman zuten lan honen berri izan zutenean, eta interes handia azaldu zuten hura argitaratzeko.

Non sailkatzen da Olaibarko eta Odietako euskara?

Eztabaida handia dago horren inguruan. Bonaparte printzeak XIX. mendean bere mapa ezaguna egin zuenean, hego nafarreran sartu zuen. Gero, Azkuek berehala esan zuen hego nafarrera eta ipar nafarrera biak bat direla eta batean sailkatu zituen. Gerora, beste batzuk etorri dira eta esan dute ez dagoela hego nafarrerarik. Zenbat buru hainbat aburu. Nik uste dut trantsizio leku batean dagoela. Nafarroan eremu handi bat dago non euskara nafarrera den, baina, aldi berean, haize guztietatik edaten duen. Toki askotan esan eta erran esaten da, irratia honen izenak adierazten duen bezala. Oraintxe ari gara Erronkariko hiztegia bukatzen, lodia atera da euskalki hori ongi dokumentatuta dagoelako. Eta,



Aitor Arana, 'Hegoaldeko goi-nafarrera' hiztegia eskuetan duela. (Nerea Uranga)



◀ Elkarrizketa entzuteko,

Erronkarin ere, gezurra badirudi ere, erran eta bertze agertzen dira, baina esan eta beste ere bai. Inoiz ezin da esan "hau bakarrik", eta Odietan eta Olaibarren ere hori gertatzen da. Nafarroa Garaian iparraldeko haizea barreneraino sartzen da. Garesen, adibidez, dokumentazioan fite topatu dugu azkar, bizkor edo arin esateko. Gauza horiek gure historia agertzen dute: behe nafar asko duela 200, 300 edo 400 urte Nafarroa Garaia etortzen ziren bizitzera, mordoia Artaxoara, eta euren euskara txertatu zuten. Odietan eta Olaibarren ere hala gertatzen da, anitz eta aunitz agertzen dira. Betiko aldaerak ere hor dabilta: putzua eta butzua...

Urrun dago euskara batutik?

Ez. Nik asko landu ditut zaraitzuera eta erronkariara eta, hor bai, jauzi handia dago euskara batutik Pirinioetako euskarara. Baina Nafarroa gehienez egiten den euskara eta dokumentatuta geratu zaiguna ez dago urrun. Batua

Nafarroako euskaratik ikusten dut gertuago, gipuzkeratik baino, nahiz eta fama alderantzizkoa den. Dena nahasian dago, ez dago ez alde batean ez bestean. Odietako eta Olaibarko euskararen badira, noski, behin eta berriz errepikatzen diren ezaugarriak, hego euskarari dagozkionak. Baten bat aipatzeagatik: haren, harena eta horrelakoak -r- bikoitzarekin esaten dira: harren eta harrena; eta, hara esateko, harara; eta, hona esateko, honara; bikoizketa txiki bat gertatzen da hor, eta horiek hego nafarreraren ezaugarri peto-petoak dira. Odietan eta Olaibarren agertzen dira, baina beste batzuekin nahastuta.

Literatura aberatsa dauka?

Ez, zoritxarrez. Odietako eta Olaibarko euskara Ezkabarterekin sartu zitekeen lasai asko, baina konturatu nintzen Ezkabarten dokumentazio eta literatura asko dagoela, erlijio iturriengatik, baina Odietan eta Olaibarren bat ere ez. Zorionez, ordea, hizkuntzagintzan urteak eta urteak dena emanda dabilta bi egile daude: Koldo Artola eta Iñaki Camino. Biak donostiarrak dira, baina Nafarroan ibilitakoak eta lan handia egin dute. Odietan eta Olaibarren ere ibili ziren biak, euskal hiztunekin, eta galdeketa sakonak eta luzeak egin zituzten. Haien grabazioak oso garrantzitsuak izan dira. Interesa duenari Interneten berehala aterako zaio.

Gaur egun ikas liteke euskararen aldaera galdu hau?

Bai, badago interes handia duen jendea eta aipatu dugun ibar horietan, arrazoi soziolinguistikoengatik, euskara batua hitz egiten duena, baina, nolabait esatearren, material hauen bitartez ari zaizkio

euren euskara batu horri bertako koloreak gehitzen. Hori oso polita da. Esate baterako, Izarbeibarren zein da asko esateko modua? Nafarroa izanda, pentsatzekoa da anitzen antzekoa izanen dela, eta aniz aldaera agertu zen, Oltzan ere agertu zitzaigun aldaera. Jendea pixkanaka-pixkanaka horrelako hitzak erabiltzen doa, interesa duen jendea, eta horientzat daude pentsatuta liburu hauek eta material hau guztia.

Behin hiztunak galdua, zer egin daiteke?

Behin hiztunak galdu direla, euskalki bat ikertzeko hiru iturri geratzen zaizkigu:

1- Erljioa: Eremu horiek oraindik euskaldunak zirenean dotrina euskaraz ematen zen eta elizetako sermoiak euskaraz ematen ziren. Batzuetan, horiek gorde egin dira ganbara zaharretan. Horregatik iturri garrantzitsua da erlijioso. Dotrina batek hiztegi bat egiteko 500 sarrera izan ditzake, eta hori hizkuntza galdu den leku batean oso garrantzitsua da.

2- Toponimia: Bigarren iturri oso garrantzitsua toponimia da. Euskara galdu den Nafarroako eremu askotan euskal toponimia dago. Bizirik dago, oso fresko dago. Hortik iturri interesgarriak etor daitezke ezaugarri interesgarriekin.

3- Maileguak: Euskara galdu den ibarretan gaztelerak gordetzen dituen euskal hitzak. Asuna bezalako hitzetan, adibidez. Izarbeibarren, esate baterako, oso hiztegi aberatsa zuten, hostazuri bezalako hitza, adibidez, gazteleraz ere erabiltzen zuten.



▲ Odietako euskararen hiztegia eta bildumako beste hiztegi batzuk.



Hamaika urtetan, hamalau ikazkinekin oihanean

Gaurko protagonistaren gurasoak, Domingo Goñi eta Valentina Olias, lehena Aizarozkoa zen eta bigarrena Ihabengo Bentakoa. Bederatzi umeen gurasoak, lau zaharrenak Aizarotzen jaioak eta hurrengo bostak Gartzarongo bentan. Hain zuzen, Miguel izan zen Gartzarongo bentan jaio zen lehena.

Orain 86 urte ditu, laster 87, osasunez bizkor, baina azken urtean bere inguruan heriotzak bortizki jo du. Lehengusu asko hil zaizkio eta okerrago dena, iaz andrea hil zitzaion, Dorita Sarasola Arregi, ongi zegoena, eritu eta hiru hilabetez joan zitzaiona, 75 urtetan.

Zorigaizto guzien gaineretik Miguelek erakutsi izan du bizitzari lotzen dakiena dela, gaurko istorioak irakurriz ikusiko duzuen bezala. Umetatik lanean gogortua. Eta berez, bizitorea, alaia eta baikorra.

Gartzarongo benta nola eta zergatik egin zen kontatu ondoren, bere bizitzaz galdetu diot:

Sei urtetan, eskolan hasiko yitzen.

Bai, Aizarotzen leenbixko. **Tomasen** itxan, horria joaten giñozken eskolá. Juntatzen giñozken 22 laun (**Atamendikoak, Luzian bordakoak, Ameikanoan** itxekoak eta gue itxekoak)

Eskola de *temporada* izaten zen, oposiziorik ez zuten maistrak bidaltzen zituen Diputazioak horrelako herri ttiketara, urritik maiatzera. Aizarozko herriak bi hilabetez luzatzen zion lanaldia, gurasoen kontura.

Hik, eskolan hasi itzelaik, bayakin euskias?



▲ *Goñi familia osoa (Senide pare bat falta, gaztetxotan hil baitziren) Goitiko lerroan, erdi-erdián dagoena da Miguel.*

E'nakikien euskias, batere. Gu ama zenak eta atte zenak, beti erdias. Ta **Luzian** bordakoak e'tzakiteken erdias. Ameikanoan bai, Atamendikoak e'bai, dexente.

Gio Erbittin ibili hitzen.

Bai, urte paria't edo hiru Aizarotzen, gio Erbittin.

Zenbat urte in yittun Erbittin? Hamalau urtiak artio?

Erbittin? Eondu nioken joittuik, anketik. Bi edo hiru urte eondu nioken eskola yoan gabe (zangoan golpe bat hartu eta hezurreen nekrosis bat sortu eta lan zailak

izan zituzten bentan. Hiru aldiz operatu zuten)

Eta hamalau urte betetzian, laniá.

Ja, ja! Hamalau urte? Hamika urtekin biali zeteken pintxe Saiora. Belatetik gora, zakurren ipurdire!

Pintxe oiániá?

Oianiá. Beutarra, **Insalasko** bordako Juanito Arregik, gue atten launek, bazin Zuriainen mendie hartue ikatz itteko Iraolandako. Eta etorri yun gue itxa eta gue attei: *Mutiko hau zergatik ez dezu uzten pintxetako?*

-Eaman'zak.



Eta eaman'zeteken maiatzian, oaiñik elurre zioken. Ultzamako bentako txelai hartatik lau orduko bidia zioken.

Zakur haragi janaldia.

Juanito zen harrek eamaten zin bizkarrian zaku batian haragie. Nik uste nin axurie eamaten zula ta allatu giñozken txaboliá atsaldeko lauetan edo holaxe. Ta prestatu bear zula, ta prestatu zin zartarin haragi puski'atzuk ta zer zen, zakurre! Zakur zuri'bet puztan motza baziten ta hori hil eta mendire eaman zin haragie jateko.

Ta han pastu giñizin zazpi illabete, itxa etorri gabe'e! E'nakiken bidia!

Oianian ta txabolan lo iñez

Bai, bai. Ogie, ta olioia bagiñin naikoa e! Ta baba! Biño haragie, txokolatia eta urdaie ez'ta baterel! Deus'e!

Ordun ze yaten ziñuten? Baba seko-sekoa?

Baba ta gio zopa. Otordu guzitan, baba ta zopa. Ogi naikoa bagiñin.

Ogie kazol batian erre edo tostatu ta gio baban salda bota ta batxuri errea; ta arraziotako zopa! Han ez'yun besteik!

Eta hik ze lan itten yun txabolian?

Lana? Bazkarie prestatu eta jana eaman.

Denendako jana hik prestatu bear izaten yun. Zenbat launendako?

Hamalau. Denak yittun Beutekoak. Yana hiru otordutako jartzen giñin. Baba beatzen jarri eta gio eosi. Gabe guzie eoten yun igual su-ondoan.

Pionak ziten obligazioa etortzen zelaik txaboliá, eur'bet ekartzeko bizkarrian. Denak eur bana ekartzen ziten, ta naiko eurre ekartzen zeteken. Hamalau launek hamalu eur.

Eta hurrengo urtian, non aittu hitzen? ▲

Aizarotzen, Ronkalek mendi guzie atia zin. Erbittiko Lino Orikaiñek hartu zin. Eta hobenez hoben, dena bota zin. Utzitako handina're

15 zentimetrokoa izain yun (diametroa)

Ekarri zittin bost pion Labaingoak eta hiru Etxalekukoak.

Eta hemen'e rantxero aittu hitzen

Bai, atia ziten mendi hoi Ximonen itxan ondoá. Bi idi parekin eta mando batekin karrotoan aittu ittun Otsakaingo batzuk, San Martin, hiru anai.

Ta ekartzen nioteken ardoa Aizaroztik, Ronkalen itxetik, eta eosten nioteken baanarra eta itten nioteken banaarra saldakin zopa.

Bi urte oianian. Eta hiruarren urtian noa yoan hitzen?

Arrasko karreterá. Txokarro eta Kareagak in ziten, lau urtes. Gipuzkoanoa eta Bizkaitarra. Eta ordun seguridad social paatu in ziuteken, hi! Nei hamalau urtekin kotizatu zeteken e! Eta Igokoei're bai.

Ongi paatzen ziten?

Guk iraazten giñizin bi pezta orduko. Eta mutillek sasoiekoak hiru pezta. Hamar ordu eunian eta 30 pza. Eta patronak kobratzen zioteken igual 20-25 pza. ta 15 eun pasa ta yoaten yittun denak. Eta bestia'tzuk ekarri. Orain paroá dela? Ordun'e bayun paroá. Itxe guzitan bayun jendia laniá joateko.



Txurdan

Hiztegia

• **Bortizki:** violentamente.

• **Hain zuzen:** precisamente.

• **Bizitorea:** Aurrera ateratzeko balio handikoa dena.

• **Baikorra:** optimista.



▲ Hona hemen Aizarozko Amerikanoaren etxea. Ezkerreko aldean bizitu zen Goñi familia.

Iker Etxeberria Larraiotz, auto lasterketetako gidari ultzamarra

Pulunpe honetan, Joxe Jabier Elizalde Iker Etxeberria auto gidariari egindako elkarrizketa ekarri dugu kirolaren atalera. Urteak daramatza gazteak rallyetan parte hartzen, eta kirol honen ingurukoak ekarri dizkigute orriotara. Eskerrik asko Elizalderi elkarrizketa egiteagatik.

Hasteko, aurkeztu pixka bat zeure burua, nor da Iker Etxeberria?

Hogeita hiru urteko gazte normala naizela esanen nuke nik. Aita Eltzaburukoa dut, ama, berriz, Larraintzarkoa. Tailer batean lan egiten dut eta kirolak praktikatzea eta lagunekin egotea gustuko ditut, baita kotxeak eta auto-lasterketetan parte hartzea ere.

Nondik datorkizu auto lasterketetarako afizioa?

Bada, lau edo bost urte nituenean aitak motor txiki bat erosi zidan. Ondoren, adinean aurrera joan ahala, motorrak aldatzen nituen, hau da, gero eta handiagoak eta indartsuagoetara pasatzen nintzen. Hamabost urte bete nituenean erosi nuen nire lehenengo autoa, Peugeot 205 GTIa, zirkuituetan ibiltzeko. Gero, hemeretzi urterekin, BMW 325a. Horiexek izan ziren hastapenak.

Zer rally mota dago? Kopilotuarekin ibiltzen zara? Zer garrantzia du kopilotuak?

Nafarroan hiru modalitate dago: lurreko rallyak, kopilotuarekin; asfaltokoak, horiek ere kopilotuarekin; eta hirugarrenez, igoerak, kopiloturik gabe. Kopilotuak garrantzia ikaragarria du. Oso beharrezkoa da elkarren

arteko konfiantza egotea, bestela, gaizki. Aitor Antoñana atarrabiarra da, normalean, nire kopilotua eta laguna. Berriki, Lizasoko Miguel Narvaezekin ere aritu nintzen lurreko rallyan.

Zein izan dira zure lorpen garrantzitsuenak?

Bada, 2022an "Lurreko Kopa Focus" junior mailan, 25 urte azpikoa, Miguel Narvaezekin. Gero, igoeretan eta rally txapelketetan, bietan txapelduna izan nintzen junior mailan.

Zenbat auto dituzu?

Ford Focusa eta BMWa. Focusak 100 zaldi ditu. Berrogeiren bat gidari izaten gara. Autoek berdinak behar dute izan, motorra, gurpilak... Begiraleak arduratzen dira horretaz. Hau da, denak baldintza beretan, abilezia handiena duenak irabaz dezan.

Garestia da? Norbaitek laguntzen dizu?

Bai, noski! Gurpilak, izena ematea, aseguruak, baimenak, erregaia...



Iñaki Etxeberria Larraiotz ▲



▲ Iker Etxeberria Larrayoz lasterrean, Agoncilloko rallyan



▲ Agoncilloko Rallyaren argazkiak. Apirilak 29 an. Lenengo saria lortu zuten.

Hortik joaten zait soldata puska. Otxandorena tailerrak laguntzen dit oraingoz, eta heldu den urterako Iraizozko ostatuko laguntza jasotzea espero dut.

Noizbait izan al duzu istripurik?

Bai, behin, Etxalarko usategietako igoeran autoa txikitu nuen arbola baten kontra. Zorionez ez nuen minik hartu, autoak prestatuak egoten baitira gidaria babesteko. Otxotorena tailerrei esker konpontzea lortu nuen.

Egunero ibiltzeko, zer auto duzu? Zitzu bizian ibiltzen den horietakoa zara?

BMWa aspaldikoa dut. Bizi-bizi ibiltzen naiz, baina azkar ibili eta arriskatzeko zirkuituak eta lasterketak ditut.

Zeinda pilotubaten prestakuntza? Eta arlo horretako erreferentzia, idoloa, nor duzu?

“

Garestia da kirol hau: gurpilak, lasterketak, aseguruak, baimenak, erregaia...

”

Prestakuntza behar duena puntu-puntu egoteko, autoa da. Niri dagokidanez, kirola betidanik gustatu izan zait. Mendira joatea, korrika egitea... Sasoian baldin bazara hobeki jasanen dituzu lasterketako estresa eta esfortzua.

Zein da etorkizunerako zure helburua?

Nafarroako txapelketa nagusia irabaztea maila guztietan, baina horretarako, besteak beste, zortea ere behar da matxurekin eta...

Etorkizunerako ongi legoke babesle edota laguntzailerren bat izatea, ez?

Jakina! Deialdia egingen dut. Hau ez da merkea. Babesleen publizitatea autoan jartzen da. Autoa, berriz, jende askok ikusten du, ez soilik korritzen ari delarik, baizik eta herriko plazan, hasi aurretik, bukatu ondoren...

Zerbait gehitu nahi duzu?

Esandakoa, ea Nafarroako txapelketa nagusia lortzen dugun, ondoren Espainiako mailan lehiatzeko. Ametsa da, eta dirua behar da. Zaila da, baina... hau da nire pasioa, zorionsu egiten nauena.

Esker mille, Iker, eta zorte handia izan!



Dabid Elizondo pintorea, eskualdea koloreztatzen

Jaiotzez arrotxapearra bada ere, urteak daramatza eskualdean bizitzen eta lanean Dabid Elizondo pintorea. Pulunpe aldizkariarekin badu harremanik Elizondok, gainera: urteak daramatza aldizkariko iragarkien atalean bere zerbitzuak iragartzen. Bada, atal honetan bere proiektua hobeki ezagutzeko aukera izanen dugu

Arrotxapeakoa zara jaiotzez, baina urteak daramatzazu eskualdean. Zein harreman duzu Ultzama aldearekin?

Ziaurritzen bizi naiz orain, baina lehenago Gelbentzun egin nituen zortzi edo bederatzita urte, eta Udaben ere bizi izan ginen urtebetez edo. Bikotearekin etorri nintzen eskualdera bizitzera, eta Ziaurritzen VPO etxebizitzak atera zirenean hona etorri ginen. Arrotxapea ni umea nintzenean herri bat bezala zen, eta horregatik agian, herri batera etortzea bazen nire asmoa.

Noiztik ari zara pintore lanetan?

Urteak daramatzat autonomo lanean. Lehen, pintura enpresa bat

izan nuen, baina krisia zela eta, enpresa bertan behera gelditu zen eta autonomo gisa hasi nintzen. Autonomo hasi nintzenean Pulunpe aldizkarian iragarkia jarri nuen, eta geroztik hemen inguruan aritzen naiz batik bat.

Batzuetan eskualdetik kanpo ere mugitzeko beharra izanen duzu lan bila, ezta?

Bai, Iruñera ere jotzen dut batzuetan, baina geroz eta gehiago aritzen naiz hemen bertan, Ultzama aldean. Nik nahiago dut hemen inguruan lan egin, jendearekin ere harremanak beti hobeak izaten dira hemen, bailaran bertan.

“ Herrietan tratua askoz zuzenagoa izaten da bezeroarekin ”

Hirian baino zailagoa da lana topatzea herri txikiotan, beraz?

Tira, hirian jende gehiago dago, eta pentsatzekoa da errazagoa dela lana eta bezeroak lortzea, baina egia da hirietan jendeak gehiago begiratzen diola diruari ere, eta kontuan izanda nik kalitatezko lana egiten dudala, hori ere ordaindu egiten da. Gainera, hirian beti enpresa askoz handiagoak ere badaude, haiek lanak txikiei ematen dizkiete, baina prezioak jaitsiz... Hemen, azkenean, herri batean margotzen ikusten zaituzte, ahoz aho galdetzen dute zer moduz egiten duzun lan, batek besteari erreferentzia ematen dio... harremanak horrela egiten dira herrietan, tratua askoz zuzenagoa da.

Uste duzu herriotako biztanleek baloratzen dutela horrelako zerbitzuak hurbilean edukitzea?

Nik uste dut baietz, baloratzen dutela. Margotze lanak kontratatu behar dituztenean, hemen ingurukoak begiratzen dituztela uste dut. Niri, esaterako, Pulunpeko iragarkiagatik deitzen dit jende askok, hor ikusi dutelako.



Dabid Elizondo, pintaketa lanetan



◀ Amezti.eus. Sartu eta nabigatu.

Zer aurkituko dugu webgunean?

Dakizuen bezala, hiru komunikabide bultzatzen ditu eskualdean Ametza Kultur Elkarteak. Pulunpe, Esan Erran irratia eta amezti.eus agerkari digitala. Azken horretan, digitalean, aurkituko dituzuen edukien laburpen bat egingen dizuegu hilero atal honetan.

Garai berrietara egokitzeko eta egungo komunikazio bidez ere baliatzeko asmoarekin jaio zen amezti.eus webgunea. Ultzama aldeko albisteen berri izateko, egunean eta sakelakoan bertan. Era berean, Esan Erran irratia entzuteko aukera ematen du, FM frekuentziaren arazoak saihestuz. Gure irratiko zuzeneko emisioa entzun daiteke 24 orduz, eta,

gainera, bertan zintzilikatzen dira Egun Ero irratsaio guztiak eta bertan eskainitako elkarrizketak eta kolaborazioak, noiznahi entzuteko. Bestalde, paperean etxeetara iritsi baino lehen, Pulunpe ere pdf-an irakurtzeko aukera ematen du webguneak.

Hemen duzue azken hilabetean aurkituko duzuenaren laburpen txiki bat.

Zenbait albiste

Esan bezala, besteak beste, Ultzama aldeko albisteen berri emateko jaio zen amezti.eus. Hilabete honetan irakurri ahal izan direneta batak: Orioko erailketa matxista salatze elkarretaratzearena eta Ultzamako igerilekuetan langile bila ari diren ingurukoa.

Egun Eroko elkarrizketak

Esan Erran irratiko Egun Ero irratsaioan elkarrizketa ugari egin ditugu. Ezin denak aipatu, baina, gutxi batzuk nabarmentzearren: Petti musikari beratarrari eta Fertxu Izquierdo ilustratzaileari egindakoak aukeratu ditugu. Biak Ultzamako Ostiral Kulturaletan izan dira.

Gainera, Larraintzarko bigarren DBHko ikasleak Frantziara Erasmus + programan egindako bidaia edo Aizarotzen izandako Maskulinitate berrien ikastaroari buruzko elkarrizketak ere aurkitu ditzakezue.



◀ Petti egindako elkarrizketa entzuteko



◀ Erasmus + programari buruzko elkarrizketa entzuteko



Egun Eroko kolaborazioak

Hogeina kolaboratzaile ditugu Egun Ero irratsaioan, gai zehatz baten inguruan hilabetean behin hitz egiten dutenak. Bi gomendatuko dizkizuegu honetan: Spoiler Alert, hilabetero pelikula eta telesailak gomendatzen dituen atala; eta, Mexikortxorekin iraultza. Azken hau pasa den ikasturtean estreinatu zen. Mexikoko iraultza kontatu ziguten losu Jauregik eta Eneko lurramendik, Pantxo Villaren korridoen laguntzarekin. Aurten, ordea, kubako iraultza kontatu digute, honetan ere, gitarra eskuetan.



◀ Spoiler alert entzuteko



Azken kartutxoak

Azken kartutxoak botako ditugu udan atseden bat hartu baino lehen (azken kartutxoak ostiral kulturaleri dagokionez, liburutegia udan ere irekita egongo da, artikulu honen bukaeran diogunez).

Gure ikasleen eta aktoreen txanda

Ekainean, Larraintzarko Ikastetxeko ikasleak protagonismo berezia izaten ari dira. Alde batetik, ikastetxeko ikasleek ikasturtean zehar egindako lan artistikoez gozatzeko aukera dugu gizarte-etxean, ekaineko erakusketan, eta, bestetik, ekainaren 2an, Larraintzar BHIko 2.DBH-ko ikasleek Europako erakunde baten dirulaguntzari esker egindako iraupen laburreko Erasmus bati buruz hitz egin eta beren senideei azalpenak eman zizkieten.

Ez da tokiko jarduera bakarra izango hilabete honetan, eta ekainaren 9an eta 10ean gehien espero den hitzorduetako bat izango dugu. Bertako antzerki taldearen (Axolagabe) emanaldiaz ari gara. Oraingo honetan **Grosso modo** antzezlanaren aurkeztuko digute, eta bertan umorez, baina errespetuz, pertsona askok pairatzen dituzten nahaste obsesibo konpulsiboak erakusten dituzten komedia dibertigarri bat eskainiko dute.

Dakizuenez, Axolagabe taldearen antzezlanek arrakasta handia izaten dute, beraz, hiru emanaldi emango dituzte: **ekainaren 9an, ostiralarekin, 20:00etan**, eta ekainarean 10ean, larunbaterekin, 17: 30ean eta 20:00etan. Inor ez dadin ikusteko aukerarik gabe eta komedia honetaz gozatu gabe geratu.





Olieriú!

Hilaren 16an oso kontzertu animatu batez gozatuko dugu, **Willy Folk** taldearen eskutik. Willy Folk taldeak Tiroleko musika jotzen du (badakizue, Heidiren musika bezalakoa: Olieriú! Alberto Blazkezek (akordeoia eta ahotsa) eta Eneko Paezek (biolina eta koruak) osatzen dute bikotea. Biek, urte askotako esperientzia dute



hainbat taldetan (esaterako, Iparfolk taldean). Proposamen dibertigarri eta originala dakarkigute, errepertorio parte-hartzaile batekin, une oro gozatu ahal izan dezagun. **Kontzertua Eritzegoitiko kultur eskolan izango da...** edo, hobeki esanda, kalean, eguraldiak uzten badigu. Kantatzeko, dantzatzeko, kongak egiteko... aukera ezin hobea.

Hurrengo ostiralean jai hartuko dugu San Joan suak direlako. Hala ere, hemendik ere jende guztia gonbidatzen dugu gozatzera, eta rollo txar guztiak sutara botatzera.

Eta, ikasturteari amaiera emateko, oso dokumental interesgarria izanen dugu. **10 watt bakarrik** film laburrak ari gara. Arantzako irrati txiki baten historia kontatzen digu, joan den

mendearen erdialdean ezkutuan, klandestinitatean emititzen zuena, hasiera batean mendira lan egitera zihoazen gazteekin komunikatzeko, baina, dokumentalaren sinopsiak dioenez, beste aztarna batzuk ere utzi zituen. Zuzendaria Oier Fuentes da, eta dokumentalaren ondoren, tokiko irratiei buruzko solasaldi bat izango da.



Liburu punki bat

Bukatzeko, udarako liburu bat gomendatzea gustatuko litzaiguke, oso liburu su-emailea baina era berean oso freskoa. **Punki** du izenburua eta egilea Juarma da. Juarma duela gutxi arte ezaguna zen TMO edo El jueves aldizkarietan marrazkilari gisa egindako lanengatik, baina duela urte batzuk Y al final gana los



monstruos izeneko eleberria argitaratu zuen. Eleberri koral bat zen, Granadako mendietako herri txiki batean kokatzen zena eta herri hartako gazteen bizitza nolakoa zen kontatzen ziguna. Bizitza basati samarra, etorkizunik gabea, drogatzea edo trapitxeoan aritzea beste ikuspegiarik gabea. Orain, Juarma eleberri horren jarraipen batekin itzuli da, eta aipatu dugun gazte horietako batean zentratzen da. Alde batetik, bere gaztaroa nolakoa izan zen kontatzen digu, punkean nola aurkitu zuen babestoki bat, adibidez. Trankimazín izeneko talde bat nola sortu zuen, Eskorbuto, Piperrak eta antzeko taldeak nola entzuten zituen... Eta, bestalde, eleberriak kokainarekiko menpekotasunetik atera nahian eta bere bikotekidearengandik banatu berri den protagonista honen gaurko bizitza nolakoa den ere kontatzen digu. Eleberriak

kapituluak txandakatzen ditu, cara b eta cara a, cassette zinta baten moduan, hori da egileak egin nahi duen egitura. Eta, azken batean, gai horien -kokaina, punka, indarkeria-lehen planoko presentziarekin, funtsean, inkomunikazioa edo maitasuna bezalako gaiez hitz egiten digun nobela bat aurkituko dugu (izan ere, nobelak Una historia de amor azpititulua darama).

Hau bezalako liburuak maileguan har ditzakezue liburutegian udan ere, lehen esan dugun bezala, irekita egongo delalo. Ekainaren 19tik irailaren 18ra bitartean, goizeko 10:30etatik 13:30era.

Ongi pasa udan eta izan liburu bat eskura, beti prest!

 **Patxi Irurzun,**
Ultzamako liburuzaína

2023ko apirila

2023ko apirilean gure alderdian izan diren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

Jaiotzak:

Guk dakigula, apirilean ez zen jaiotzarik izan.

Ezkontzak:

Guk dakigula, apirilean ez zen ezkontzarik izan.

Heriotzak:

ANUE Aritzu

Eusebio Zilbeti Erbiti, **Beltraneko** nagusia, apirilaren 8an hil zen, 88 urtetan.

ATETZ Aroztegi

Luis Maria Gerendiain Eritze, **Txurdaneko** nagusia, apirilaren 25ean hil zen, 75 urtetan.

BASABURUA Igoa-Aizarotz

Santiago Ezkurra Altsua, Igoako **Salbadorenean** jaioa, apirilaren 22an hil zen, 84 urtetan.

“
Zuen maitasuna,
gelditzen zaiguna.
”



▲ Eusebio Zilbeti



▲ Luis Maria Gerendiain



▲ Santi Ezkurra

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karricolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com





irailak 23 ● jazztatu!

jazz mugikorra Imotz, Basaburua eta Ultzamatik

urriak 7 ● bertso saio musikatua

Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal eta Julio Soto
Santurbeko baselizan (Odieta)

urriak 21 ● 25. urteurren festa

herri-kirolak, dantzak, bazkaria, kontzertuak...
Eritzegoitin (Atetz)